

# noaua

**2015eko udal aurrekontua,  
hasieraz onartua**

**“Odol emaille berriak  
behar ditugu”**


**Gabonak, iruditlan**



**“Haritza eta hitza,  
oroimenaren gordeleku  
eta geroaren zutarri”**

# BOX Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...

Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak


**ORDU ERDIA : 10€** Ondorengo minutuak : 0,35€

-2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!


Eta nahi izanez gero laguntza !!

Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

**GURPILAK PREZIO ONEANI!**

 **666 539 269**

Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil



## FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELA KORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

**·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK  
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)**

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 € tik**



**12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea  
20009 Donostia

E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditzen

# Lokal hutsak itxura berritzen, "Usurbil Zabalik"

Irudiko lokaleko atariaren itxura deigarria ezta? Gutxi barru, tankera beretsuko atari gehiago topatuko dituzue herri erdigunean, Usurbilgo Udalak martxan jarritako "Usurbil Zabalik" egitasmoari esker. Itxita dauden lokal komertzialetako erakusleho eta fatxadak apaintzeko diru-laguntza deialdia egin zuen Udalak udazkenean. Merkataritza irudia hobetu, jarduera berriak zabaltzeko aukera eskaini, herri merkataritza sustatu nahi zen proiektu honen bidez. Udal diru-laguntza deialdi hau, itxita egon eta epe motzean itxita jarraituko duten lokal komertzialetako jabeek zuzendua zegoen.

Deialdi honetara aurkeztu eta apaintzeko aukeratuak izan diren lokaletako bat duzue argazkikoa. Esandakoa ordea, ez da bakarra.

Itxuraz edertuta ageriko zaizkigu las-



Merkataritzaren irudia hobetu eta jarduera berriak sustatu nahi dira ekimen honen bitartez.

ter, beste hainbat lokal hutsetako atariak. Apaintze gastuak, Udalak Eusko

Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntza batekin ordainduko dira.

## Laburrean

### Gaztelekutik Igeldora, larunbatean

Eguberrietarako programaturiko ekitaldi sortan azken hitzordua larunbat honetan, urtarrilaren 10ean. Gaztelekutik Igeldora joateko irteera antolatu dute, DBH 1 taldekoentzat. Arratsaldeko 15:45etan abiatuko dira.

### 1956koen kinto afarian izena emateko epea zabalik

Oraindik bada denbora. Otsailaren 28an batuko baitira 1956an jaiotakoak Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik izango da otsailaren 21era arte. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

### Bazkideen batzarra Bihurri haur ludotekan

Ostiral honetan, urtarrilaren 9an, iluntzeko 20:00etan, ludotekan bertan. Bi gai hartuko dituzte ahotan, bazkideen batzar orokorrean:  
1-Kontuen argiketa.  
2-Arduradun berrien hautaketa.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak

Euskal Herra!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Imanol Ubeda

# Turista bere herrian

**E**guberri hauetan Bernardo Atxaga ezagutzeko aukera izan dut. Nire belaunaldi-koak bere imaginarioarekin hazi eta hezi gara. Bere ipuinekin, bere nobelekin, bere poesiarekin elikatu ginen eskola garaian. Eta gerora, zenbaitzuk bederen, bere idazketaz gozaten jarraitu dugu. Sorpresa atsegina hartu dut bere azken liburuarekin, *Txoriak kolpeka* izenekoarekin. Pamiela etxearekin plazaratu du eta laburra da: bi ipuinez eta saiakera batez osatzen da. Portzierto, Erle Eguneko lagunok: liburu honetan badu erleei eta erlauntzei buruzko ipuin bat, magistrala dena.

Ba Atxagarekin izandako enkontuan, hain zuzen, bere azken liburuaz luze zabal hitz egiteko aukera izan genuen. Aurkezpen ekitaldian, *Vacas* (Julio Medem, 1992)

pelikulako pasarte bat aipatu zuen. Apustuarena nola jasoa dagoen sinetsgaitza egiten zitzaiola esan zuen. Eta Eguberrietan izan genuen solasaldian, gaia atera nion. "Apustuaren munduari buruz, jende euskaldunak, gehiengoak, begirada turistiko bat dauka", adierazi zidan.

Eta hala argudiatu zidan bere inpresioa: "Vacas izan daiteke oso pelikula interesgarria, baina nik ezin dut pelikula hori sinetsi. Nabarmendu egiten da. Bi aizkolariak aurrez aurre entrenatzen ageri dira, hori sinestezina iruditzen zait. Turista batentzako apustua da hori. Barrutik bizi izan dugunok (Asteasukoa da Bernardo Atxaga, eta umetatik ezagutu ditugunok), badakigu apustu bat dagoenean apustulariak gordean egoten direla, ezkutatu egiten dituztela, inork ez dakiela non ari diren entrenatzen, eta jakinda ere oso zaila dela

jakitea ze markak egiten dituzten. Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian kontatu nuen hori".

Barnekotasunaren kontzeptuarekin lotu zuen apustuaren inguruko afera. "Niretzat barnekotasuna funtsezkoa da. Funtsezkoa. Areago esango nuke gure kasuan. Gu euskaldunak, baina ez Donostiako euskaldunak, edo Bilboko euskaldunak, barneko edo mendiko euskaldunak ez dugu gutaz hitz egin, beste batzuk idatzi dute gutaz. Théophile Gautier pasa zen Tolosaldeetik XIX. mendean, eta *Voyage on Spagne* irakurtzen duzunean, ezin duzu hori sufritu, hain da esterotipatua".

Berehala egin nuen kalkulua, nire kolkorako. Julio Medem zinegilea Donostiakoa da. Asteasutik 15 kilometrora edo. Zubieta, Usurbil, Aginaga... bertatik bertara ditu.

"Barnekotasun" hori ezagutzeko gabezia handiagoa du, ordea, hiriko zinegileak: barnekoen hizkuntza du faltan. Hori ez zidan Atxagak aipatu. Hori nik diot. Bertako ohiturak, kanpo zein barne munduak hobeto ezagutzeko tresna baita hizkuntza.

"Eta apustua nola egiten zen kontatzen dudanean, nire bizitza hori izan delako kontatzen dut", halaxe azaltzen zidan Atxagak. "Eta beste batek apustu mundua folklorea dela pentsatzen badu, ba hori turista bat da bere herrian. Hori oso tristea da, zure herrian ere turista izatea. Ez dakit ondo esplikatzeko naizen".

Gauza gehiagotaz ere hitz egin genuen ondoren. Baina nire begiradak zenbat duen turistotik, zein neurritaraino naiz turista nire herrian... Zalantza horiekin agurtu nuen Asteasukoa idazlea.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Ika-Mika

# Urtarrilaren 16an, 2015eko Gure Esku Dago ekimenaren lehen zita

**K**aixo lagun! Mezu honen bidez urtarrilaren 16an arratsaldeko 19:00etan Sutegin egingo dugun "Jostunak" dokumentalaren emanaldira gonbidatu nahi zaitugu. Dokumental honek Gure Esku Dago ekimenaren sorrera eta garapena ditu ardatz, ekainaren 8ko giza katea barne, eta Euskal Herriko kolore desberdinetako pertsona esanguratsuen bitartez, erabakitzeo eskubidearen korapilo nagusien inguruko hausnarketak dakar. Herritarron borondateak

jositako istorio bat kontatzen du. Zure izan zinen ekainak 8 eder hartako protagonista eta ziur gaude dokumentala gustoko izango duzula!

Dokumentala proiektatzeaz gain, Usurbilgo Gure Esku Dago 2015ean aurrera eraman nahi dituen ekimen nagusiak azaldu eta ekainaren 20an egingo den erronka nazionala aurkezteko ere baliatuko dugu eguna. Ikasturte honetan erabakitzeo eskubidearen alde "erabakia ehuntzen" jarraitu nahi dugu eta bidea egiteko

ekimen berriak prestatzen ari gara. Horretarako zuen parte hartzea behar beharrezkoa da.

Ekimen honen oinarriak gogoratu nahi ditugu berriro: gurea dinamika herritarra da. Erabakitzeo eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten duen dinamika anitza eta parte-hartzailea, tokian tokiko ekimenei aterkia eskaintzen diena. Urtea hasi besterik ez da egin eta lan asko dugu egiteko; lehenengo zita urtarrilaren 16an Sutegin, bertan ikusiko dugu

elkar!

Herri bat gara. Erabakitzeo eskubidea dugu. Herritarron garaia da.

## Usurbilgo Gure Esku Dago

\*Urtarrilaren 16an Sutegin: "Jostunak" dokumentalaren emanaldia, ekainaren 8ko Giza Katearen Usurbilgo irudien laburpena. Ondoren, 2015eko ekimen nagusien azalpena.

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

  
**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**Josue**  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Pinturas**  
**Ion**  
KANPOALDEKO FATXADAK ETA  
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)  
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK  
690 99 05 58  
ionf81@hotmail.com

## Urdaiagako ur gordailua konpontzera doaz



Urdaiagako ur gordailuan egin nahi dituzten konponketa lanak, zortzi asteren buruan amaitzea aurreikusitako Udalak.

Urak eta kloroak kaltetua dute Urdaiagako ur gordailua. Usurbildarrek edandako uraren %42 bertakoa dela aintzakotzat hartuta, Udaletik ohartarazi dutenez, “konponketa hauek egitea beharrezkoa iruditu zaigu”. Lanak urtarrileko lehen egunetan egitekoak dira, eta zortzi asteren buruan, amaitzea aurreikusten da. Obrak Construcciones Zubieder S.L. enpresari esleitu dizkio Udalak. 148.660,75 euroko inbertsioa bideratu dute lanotara.

Gordailuaren beharrak aztertu ditu Udalak eta “azterketa sakon bat egin ondoren, proiektuak ondorengo aktuazio nagusi hauek jasotzen ditu:

- Barruko hormen konponketa. Age-rian dauden hormetan urak sortutako kalteak tratatu eta konponduko dira.
- Sabaiak gehiegizko zama izateaz gain, kalte handiak dauzka. Ondorioz, sabaia ezabatu eta arinagoa izango den sabai berria eraikiko da.
- Egungo giltzen gela handitu eta giltzak berrituko dira.

### Telebistako antenak

A zer nolako saltsa sortu den, etxeetako antenen egokitzapen lanekin. Izatez, urte amaierarako etxe guztietako antenek egokituak behar zuten, urte berriatik aurrera arazorik gabe telebista kate guztiak ikusten jarraitu nahi bagenuen. Azkenean ordea, antenak egokitzeko lanen epe muga atzeratu egin dute. Berandu zabiltzatenok adi; lanok burutzeko beste hiru hilabete dituzue, martxoaren 31ra arte.

### Baso lanak Irisasin

18,1 hektarea matarrasa bidez ustiatzeko lanak hasi zituzten abenduan Irisasin. Prestaketa lanak amaituta, bertako egurra ateratzen hasiko da Basalan Arrospide S.L., Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen Irisasiko eremuan aipatu jarduerak gauzatzeko esleipena jaso duen enpresa. “Aipatu eremua, 1962. urtean landaturiko radiata pinuz osaturiko basoa da, eta behin egurra ateratakoan, Aldundiaren asmoa mendi eremu hori larre bihurtzea da”, berri eman dute Udaletik.

### Birlandatzea

Foru Aldundiak berriki moztutako 20,5 hektarea birlandatuko ditu. “4A unadan nagusiki pagoa landatuko da eta urkia izango da espezie laguntzailea. 2A unadan berriz, 11,5 hektarea birlandatuko dira, haritza izango delarik espezie nagusia eta lizarra ere landatuko delarik”, diote Udaletik.

## Kalezar eta Txaramuntoko haur parkeak, eraberrituak

Ursurbilgo Udala, abenduan zehar Kalezar eta Txaramuntoko haur parkeak berritzeko zen. Eta obren ardura zuen Benito Urban enpresari, amaitu ditu lanok dagoeneko.

### Kalezar haur parkea

■ Egin diren lanak: “zegoen zorua kendu egin da eta goma berria jarri da azalera guztian. Halaber, zeuden jokoak osatu eta

berritu dira”. Aurrekontua: 7.812,12 euro.

### Txaramuntoko haur parkea

■ Egin diren lanak: “zorua aldatu egin da eta goma berria jarri da azalera guztian. Txirristra eta balantzin zaharrak kendu eta berriengatik ordezkatu dira eta muelle berria jarri da. Kulunka mantendu egin da, pintaketa lanak egin ondoren”. Aurrekontua: 5.876,67 euro.



Kalezarren zorua kendu eta goma berria ipini da. Jokoak osatu eta berritu egin dira.

### Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.  
Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.  
Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.  
Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.  
Interneten bereizten gaituen puntua.  
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.  
Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.  
Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus) webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



# Urte berria, udal aurrekontu berria



Abenduaren azkenetan onartu zen 2015eko udal aurrekontua. Oraingoz, behin behineko izaerarekin.

**2**015eko Udal Aurrekontu Proiektua hasieraz onartu zen abenduaren 22an. Gehiengo osoz onartu ere, Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin. Aurka azaldu ziren Hamaikabat eta PSE. Hamabost egunez egon da udal aurrekontua jendaurrean.

## Igoera txiki batekin

Alaitz Aizpuruak Bilduko zinegotziak plenoan aditzera eman zuenez, igoerarekin dator 2015eko udal aurrekontu proposamena, nahiz eta igoera hori txikia izan. Sarrerei dago-kionez, zuzeneko zergen bitartez biltzen dena mantendu egingo da. Sarrera handiagoa aurreikusitako zeharkako zergekin. Babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak egingo dira 2015ean eta horri esker handituko da zeharkako diru sarreren partida.

Sarreren alorrean, “zuhurtziaz” egindako errebisioak izango direla azpimarratu zuen Alaitz Aizpuruak, Bilduko zinegotziak.

Gastuen arloan, langilegoan %3'75eko igoera aurreikusitako da 2015eko udal aurrekontuan. Baina “ez da soldata igoera batengatik izango”. Lanbide eta enplegu programetatik eratorritako gastuak izango dira 3'75eko igoera ekarriko dutenak.

## HAMAIKABAT

**“Gure ekarpenak kontuan hartu ez direnez, gure bozka aurkakoa izango da”**

## 919.710 euro inbertsioetan

Inbertsioetan iaz baino gehiago gastatuko da. 919.710 euroko inbertsioa egiteko asmoa du Udalak. Belmonte kalea egokitu, Askatasuna plazako parkea berritu, komun publikoak ipini, bidegorri sarea indartu, Aginagako herri-bidea handitu, Kiroldegian hobekuntzak egin, Aginagako Ariztitxo pilotalekua hobetu, Zabaleko horma konpondu, “barredora” berri bat erosi...

Halaber, eragile eta talde ezberdinak laguntzen jarraitzeko asmoa du Udalak. Eta 2015ean apostu horri eutsiko dio Usurbilgo Udalak. Sail guztietan ematen diren laguntzak bermatuko dira aurrerantzean ere.

Gizarte-ekintzan saiakera berezia egingo dutela azaldu zuen Alaitz Aizpuruak: “Etxez etxe zerbitzua, Eguneko Zentroa, Adineko pertsonentzako planak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen aldeko planak...” bultzatuko dituzte.

Tokiko garapenari garrantzia emango zaio. Eta hala jasota geratu da 2015eko udal

aurrekontu proposamenean. Beterriko sei udaletxeetan, eta “sinatu den lankidetzaz hitzarmenari esker, tokiko garapena indar berezia hartzen joango da”. Horretarako, Lanbide zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasoko dute.

Garapen bidean diren herriei ere diru partida bat eskainiko zaie.

## Bozketan, PSE-EE eta Hamaikabat aurka

Bozketa ordua iritsi zenean, Luismari Ormaetxeak (Hamaikabat alderdiko ordezkariak) hitza hartu eta ezezko botoa emango zutela aurreratu zuen. “Batzordean adierazi bezala, gure taldeak ekarpen batzuk egin zituen eta osoko zuzenketa ere aurkeztu zuen. Ekarpenean eta osotasunezko emendakinak kontuan hartu ez direnez, gure bozka aurkakoa izango da”.

PSE-EEK ere osoko zuzenketa aurkeztu zuen baina hau ere ez zen aintzakotzat hartu.

Arestian esan bezala, bozketan, udal gobernua aurkeztu zuen aurrekontu proposamena atera zen aurrera, Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin. PSE-EE eta Hamaikabat aurka agertu ziren. Ondorioz, ez ziren onartuak izan ez PSE-EEK ezta Hamaikabatek aurkezturiko osotasunezko emendakinak.

## Lanpostuen zerrenda

2015. urterako Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa, udal aurrekontuarekin batera onartu beharra dago. Hau ere, hasieraz onartu da. PSE-EE, Aralar eta Bildu alderdiek aldeko botoa eman zuten, Hamaikabat alderdiak abstentziora jo zuen.

## Atxeganea baserria

Santuenea 35 helbidean den baserria berreraiki nahi dute jabeek, baina proiektuaren erakuntza, instalazio eta obra gaineko zergari %50eko hobaria aplikatzea eskatu diote Udalari. Interes bereziko eraikina izanik, hobari horretaz baliatzeko aukera du. Udalbatzan ordezkartuta dauden alderdi guztiek alde bozkatu zuten. Beraz, ahobatez onartu zen.

## Hilerriko lote berri bat

Udalak hilerriko berri hilerrien gaineko eskubideak esleitu ahal izateko lote berri baten eskaintza egingea, ahobatez onartu da.

## Etxez etxe zerbitzua

Etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratua beste urtebetez luzatzeko proposamena ere ahobatez onartu zen. 2015eko urtarrilaren 2tik 2016ko urtarrilaren 1a arte.

## Aginagako erribera

Erriberako bidearen erabilera, izaera publikokoa bihurtzeko proposamena aztergaien artean zen. Espedientearen berri eman zuen Jone Urdanpilleta Bilduko zinegotziak. Lau tramo edo zati dagoeneko erabilera publikokoa dira eta bosgarren tramo bat da orain herri bide bilakatuko dena. Lur jabeekin hitzarmena sinatzeko garaian adostasunik egon ez denez, desjabetze espediente bat ipini beharko da martxan. Puntu honetan ere alderdi denak bat etorri dira eta ahobatez onartu zen udal gobernuaren proposamena.

# Aurrekontu berriaren gako nagusiak

## 2015eko aurrekontua

10.482.470 euro. Iazkoa baino 122.000 euro altuagoa (%1,8 altuagoa). "Azken bi urteotan goranzka ari bagara ere, horrek ez du esan nahi datozen urteetarako igoera nabarmenik aurreikusten dugunik", Bildutik aditzera eman digutenez. "Aurrekontuak bere horretan mantentzeko aurreikuspena daukagu".

- 2011: 13.903.890 euro.
- 2012: 10.982.729 euro.
- 2013: 10.033.478 euro.
- 2014: 10.360.521 euro.
- 2015: 10.482.470 euro.

## Legeak baldintzatuta

Aurreikuspenaz gain, Espainiako legeak ez du udalen gastua handitzen uzten. Hau da, "nahiz eta diru sarrera handiagoak aurreikusi edo izan, iazko gastua baino %1,3 gehiago bakarrik gastatu genezake", Alaitz Aizpurua Bilduko zinegotziak aditzera eman digunez. Gainerako diru sarrerak, baleude, Udalak izan ditzazkeen zorrak ordaintzera bideratu beharko dira, "honek ere gauzak asko mugatzen ditu eta inbertsio berriak egiteko zailtasun handiak jartzen ditu". Usurbilgo udalaren finantza zama %3,69 da, beraz legea eskuetan, Usurbilgo Udalak zailtasun handiak ditu proiektu berriak finantzatzeko eta egitasmo berriak aurrera ateratzeko.

## Zergak eta tasak ez dira igoko

Zergak eta tasak mantendu egingo dira, beste era batean esanda: igoerarik ez da aurreikusten zuzeneko zergetan eta tasetan. Aldiz, zeharkako zergetan, eraikuntza eta obretako zergetan bereziki, sarrera igoera bat aurreikusten da. Besteak beste, Ugartondon eraikiko diren etxebizitzak tar-



Kalezar eta Txaramuntoko parkeak berriitu dira. 2015eko udal aurrekontuarekin, Askatasuna plazako haur parkean diren jokoak berriuko dira.

teko, "470.000 euro jasotzea aurreikusten dugu". Guztira, 48 babes ofizialeko etxe eta beste 48 tasatuak eraikitzea aurreikusten da.

Foru Aldundiak Udalei emandako digun diru-funtsa ere igoko da 2015ean eta %3,35eko igoera aurreikusi du Udalak.

Bilduren esanetan, "igoera hauek gainerako diru sarreretan izan ditzakegun gutxitzeak leunduko dizkigu". Diru sarrera guztiak zehaztasun aurreratu dituzte.

## Udal langileen

### soldatak ez dira igoko

Aurrekontuaren %35,8 pertsonal gastuari dagokio. Hala ere, langileek ez dute soldata igoerarik izango aurten. "Rajoiaren legeak ez baitigu horrelakorik egiten uzten", udal gobernutik aditzera eman digutenez.

## Herriko taldeei babes mantendu, edota igo

Bilduk ezarri duen irizpideari jarraituz, "herriko talde eta eragileei bideratutako diru laguntza guztiak mantendu edo igo ditugu". Kulturako dirulaguntzetan 80.000 euro, euskara ikasten dutenentzat 16.000, aisialdiko begirale eta zuzendariak 1.700, kirol egitasmoetan 45.000, ongizateko (zahar egoitza eta herriko zein

kanpoko taldeak) egitasmoentzako dirulaguntzak 37.500, nekazaritzan 10.000 eta ingurumenean 10.000.

## Gizartegintza,

### lehentasunen artean

"Etxez etxeko zerbitzua 84.000 euro, eguneko zentroa kudeatzeko 175.000, familia eskuhartzeetarako 63.000, adineko pentsiodunentzako programak 16.000, osasun plana 12.000 edo buruko gaixotasuna dutenekin eskuhartzea 12.000, Gizarte larrialdietan daudenentzat dirulaguntzak 70.000. Garapen bidean dauden herriei ere 79.000 bideratzen dizkiegu", Alaitz Aipurua zinegotziak emandako datuak hauek.

## Mantenu gastuak

Konpoketa eta mantenimendu lanak, argindar, gas eta bestelako horniketak eta ohiko gastuetan joaten da aurrekontuaren zati handi bat, 4,5 milioi (%42,8a).

## Inbertsioak

Aurtengo 908.000 euroko inbertsioa egiteko asmoa du Udalak, iaz baino 235.000 euro gehiago.

- Eraginkortasun energetikorako inbertsioak: 50.000 euro.
- Belmonte kaleko konponketak: 34.000.

- Askatasuna plazako haurrentzako jokoak: 75.000.
- Komun publikoak: 48.000.
- Bidegorrien sarea: 20.000.
- Aginagako herri bidea: 60.000.
- Ariztixoko frontisa: 32.000.
- Kiroldegiko aireztapen eta konponketa ezberdinak: 88.500.
- Bulderra: 20.000
- Zabaleako bidea eusten duen horma: 28.700.

## Plan Orokorren erredakzioa

2014an hasitakoari jarraipena eginez, Plan Orokorren erredakzioa egiteko 125.000 euroko partida aurreikusi du Udalak.

## Tokiko garapenari indarra eman

Eskualdean martxan diren proiektuak indartu eta sustatu nahi ditu udal gobernuek: Inno-fero, Kooperatzen, Hondakinen ikastaro eta enplegu planak, autoenplegua, enpresen dirulaguntza... "Egitasmo hauek guztiak eskualde mailan landu eta aurrera aterako ditugu eta eskualde izaera eta lurraldetasuna lantzeko ere baliagarria izango zaigu". Finantziario iturri ezberdinak baliatuko dituzte horretarako, Lanbide, Gipuzkoako Foru Aldundia "eta noski, Udalok egiten dugun ekarpena ere. Herrian bertan ere merkataritza plana, Hurbilago elkartearekin elkarlana edo merkatal lokal hutsen egitasmoa ere izango ditugu. Guztira, 2015erako 118.000 euroko partida aurreikusi dugu".

## Oposizioaren balorazioak

Udal gobernuaren balorazioa jaso dugu orrialde honetan. Datuak aztertzen, aurrekontuen inguruan oposizioko taldeek eginiko balorazioak emango ditugu argitara.

## “Euskal Herrira orain” Bilboko mobilizaziora joateko autobusa

**A**utobus zerbitzua antolatu dute Usurbilen, euskal presoek eskubideen alde “Euskal Herrira orain” aldarrpean larunbat honetan, urtarrilaren 10ean 17:30etan Bilbon Sare mugimenduak deitu duen mobilizaziora joateko; lehenengo zerbitzua 10:00etan izango da, eta bigarrena arratsaldean, 15:30etan. Oiaro Kiroldigitik abiatuko dira bus zerbitzuok. Izen emateko zerrendak, Aitzaga Elkartean eta tabernan, Txiribogan, Bordatxon eta Zendoian jarri dituzte. Apuntatzeko azken eguna, ostegun hau, urtarrilaren 8a.

“Sentsibilitate ezberdinak barnebilduko dituen eta sigla edo helburu politiko jakinen gainetik egongo den sare herritarraren Saretzea da oinarritzeko ardatza. Horretan sinetsita gaude. Guztiontzat justuagoa izango den etorkizun



Deialdia egin zeneko irudia. Autobusean izena emateko epea urtarrilaren 8an amaitzen da.

batera bidean, etxe bat eraikitzeko zimentu egonkor eta sendoak jartzea ezinbestekoa izaten den bezala, giza eskubideen errespetua oinarri duen jendartea eraikitzeko erronka eta konpromezua hartzen du Sarek”, manifestazioaren deitzaileak.

## Inauterietan, ipuinez mozorrotzera



Aurten, otsailaren 14arekin egokitu da Inauteri Festa.

**B**este batzuen sormen lanaz baliatzeko aukera duzue, datorren Inauteri Festan. Ipuinak ditugu aurten, mozorrotzeko aitzakia, otsailaren 14an ospatuko dugun jaian. Eguberri aurretik, tabernetan zintzilikatu genituen zerrendetan jasotako proposamenetako

bat izan da ipuinena. Zuen ekarpena beraz. Baina gehiago ere egon dira; historia, pelikulak, natura, lanbideak... Milesker parte hartu duzue! Eta hasi buruari eragin eta mozorroa presatzen! Otsailaren 14a konturatzerako, gainean izango dugu eta.

### 4 saritu, Hurbilagoren gabonetako zozketan

Hauk dira zenbaki sarituak:

1. saria: Bizikleta Coluer Sphera 260 Disc HD: 134.294 (Esnaola lurrindegiko bezero bati egokitu zaio).
2. saria: Panasonic TX 42AS500E-42 telebisita: 132.063 (Marije arropa dendako bezero bati egokitu zaio).
3. saria: Tablet Airis Onepad 735: 134.650 (Argilan dendako bezero bati egokitu zaio).
4. saria: sukalderako ontziteria: ECCO 5 pieza: 156.571 (Txalaka dendako bezero bati egokitu zaio).

### Teknologia berrien inguruko formazio saioa, urtarrilaren 26an Potxoenean

Urtarrilaren 26an, 18:00-20:00 artean Potxoenean. Teknologia berrien erabilera osasuntsu eta arrisku gabekoa izango da formazio saioko mintzagai nagusia. Hitzordua, Pantallas Amigas-eko Araiz Zalduegik bideratuko du. “Formakuntza saio honen helburua, internet eta teknologia berriak erabiltzerakoan adingabeek aurkitu ditzaketen arriskuak eta hauen ondorioak aztertzea izango da. Honekin batera, adingabeak babesteko sustatu ahal diren prebentzio-neurrietaz aholku emango da”, antolatzaileek berri eman dutenez.

### Guraso, tutore eta hezitzaileei zuzendua

Formazio saio hau, Usurbilgo Udalak onartua duen Mendekotasunen Prebentziorako I. Udal Planaren baitan kokatzen da.

Teknologia berrien erabilera osasuntsua sustatu nahi da herriko ikastetxe eta herriarren artean, formazio saio honen bidez. Guraso, tutore legal edota hezitzaile lanean dihardutenei zuzendua egongo da.

### Izen-ematea

Izen emateko, apuntatu aurrez doan bide hauetatik: [gizartelangilea3@usurbil.eus](mailto:gizartelangilea3@usurbil.eus)  
Telefono zenbakia: 943 377 110

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

ZALDIGAIN  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

[www.zaldigain.com](http://www.zaldigain.com) • [info@zaldigain.com](mailto:info@zaldigain.com)  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO



# Gabonetako irudi batzuk



Oporretara kantu giroan joan ziren Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleak abenduaren 19an. Haur Eskolatik hasi eta DBHra arte, kalejira bereziekin eman zieten ongi etorria gabonei.



Aginaga eta Zubietako Eskola Txikiek ere, baseritar jantziekin, kalera irten eta abestuz amaitu zuten urteko azken klase eguna, abenduaren 19an. Merezitako bi asteko oporraldia izan dute.

## Gaztelekukoak, Txuri Urdinen



Patinatzen zaletuak dira Gaztelekukoak. Urtero eguberrietako agendan, huts egin ezin duten bisita antolatzen dute Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira.

## Eskubaloi Txapelketa



Mirotzen omenez abenduaren 27an ospaturiko infanfil mailako eskubaloi txapelketan etxekoak nagusi aurten. Basauri, Tolosa, Zumaia, Zarautz, Eibar edota Oñatitik etorritako neska-mutilen artean, Usurbil K.E.-koak irabazle.

## San Esteban Txiki



San Esteban auzora igotzeko giro atsegina zegoen abenduaren 26an. Ohi bezala, mezatik atera orduko, zain zuten hamaiketakoa.

## Errege Magoen bisita



Eszkuzabal, opari gozoekin eta haurren azken eskariak entzuteko prest heldu ziren erregeak astelehen iluntzean. Argazki gehiago: noaua.eus web orrialdean.

# Egia jorratzen hasteko unea aldarriko

**H**amarkada luzez herri honek, eta modu gordinenean hainbat herritarrek sufritutako gatazka politikoa konpontzeko egia, justizia eta aitortzaren beharra aldarrikatu ziren, abenduaren 30ean, “Egia bide askatasuna amets!” goiburupean ospatu zen ekitaldi baten bidez. Ikuspegi eta belaunaldi ezberdinetako herritarrak bildu zituen Bizkarre ondoko parkean buruturiko hitzordua.

Poesia errezitaldi, dantzari, txalaparta saio, eta kantu artean, haritz bat landatu zuten, Usurbilgo memoriaren parkea bilakatu nahi duten Bizkarre ondoko lur eremuan. Landa-tzean, hiru belaunaldietako kideek parte hartu zuten. Gatazka politikoa modu gordinenean bizi izandako ikuspegi ezberdinetako bi herritarrek,



Dantzariak, Bizkarre ondoko parkean egin zen ekitaldian.

eta gatazkarik gabeko etorkizuna irudikatu nahi izan zuten hirugarren belaunaldiko

haur batek. “Oroimena eta hitza landatu eta ongarritu nahi ditugu. Haritza eta hitza.

Oroimenaren gordeleku eta geroaren zutarri”, ekitaldian adierazi zuten.

## “Oroimena eta hitza landatu eta ongarritu nahi ditugu”

**A** benduaren 30ean, idatzi hauxe irakurri zen ekitaldira bertaratu zirenen aurrean.

“Oi lur!!! betiko lur, ebasleek odoleztatua, zanpatua eta ukatua. Eraso guztien aurrean altxatua zure seme alabek adoretz defendatua mendeetako askatasun borrokaren lekuko isila.

Askatasuna izan da beti Euskal Herriaren desio eta ametsen or-tzimuga. Ekinbide horrek sarritan ekarri ditu ondorio latzak. Fran-tziar zein espainiar estatuek Euskal Herriari ezarritako ukazioa, erasoerrenda luzeetan islatzen da: fusilamenduak, gerra zikina, desagerketak, bahiketak, epaiketa estrajudizialak, torturak, espetxe

politika, ... Gobernu diktatorialen praktika errepresibo guztiak erabili dituzte.

Azken hamarkadetako gertaera politiko sozialak, Euskal Herriaren errelatoaren paisaia osatzen du. Batzuek, beraien interesen arabera errelato monolitiko eta partzialaren ofentsiba abian jarri dutenean, besteok, guztion egia jasoko duena aldarrikatzen dugu. Egia osoa, inor baztertuko ez duena, gatazkaren ondorio larriak pairatu dituzten pertsonak ahantziko ez dituen. Egia, gertakizunaren egi osoa izango da, guztion artean osatu behar duguna.

Ez dugu inolaz ere onartuko sasi errelatorik, non ezabatu nahiko den gure herriaren historian

milaka herritarrek bizi izan duten errealitatea. Estatuak asumitu beharko dituzte beren ardurapean hamarkada luzeetan burututako erahilketa eta torturak. Estatu krimenak finean.

Gatazkaren arrazoiak eta ondorioak politikoak direnez, akordio politikoa eta demokratikoa ahalbideratuko duen konponbidea lortzeko lan egingo dugu. Elkarbizitza eta eskubide guztien onarpena eta gauzapena ahalbidetuko duen konponbidea.

Oraindik urrun gaude pertsona guztien eskubide guztiak errespetatuak izango diren egoeratik. Euskal Herriaren aldaketarako gure ekarpenak, oinarriko zutabe izango ditu eraildako pertsonen

oroimena, gertatuaren errekonozimendua, hau da, egia, justizia eta aitortza. Soluzio politikoaren ezinbesteko zutabeak azken hamarkadetako zikloa itxi dadin.

Eskubide horiek defendatu eta Euskal Herriaren askatasunaren alde bizia eman duten herritarrei gure aitortzatik haratago beraien helburuak gure eginik Euskal Herriaren askatasunaren alde lanean jarraitzea izanen da eskainiko diegun omenik ederrena.

Gaur, hemen, Usurbilgo memoriaren parkea bilakatu nahi dugun eremu honetan, oroimena eta hitza landatu eta ongarritu nahi ditugu.

Haritza eta hitza, oroimenaren gordeleku eta geroaren zutarri.

Egia bide Askatasuna amets!”

# atu zen abenduaren 30eko ekitaldian

## Xabier Miguel Ezkerra: “Zerbait hasi da abenduaren 30ean”

Hala dio, lau hamarkada herri-  
tik kanpo bizi behar izan dituen  
Xabier Miguel Ezkerra usur-  
bildarrak. Hamarkada luzez,  
sufirimendu latza eragin duen  
gatazka politikoaren ostean,  
abenduaren 30eko ekitaldia,  
egiaren bidea jorratzen haste-  
ko abiapuntua izan zela dio.  
Abiapuntu historikoa, Usur-  
bilen, ikuspegi ezberdinetako  
herritarrek “gatazkaren irakur-  
ketaren inguruan, desio berbera  
irudikatzen dugun lehenbiziko  
aldia”. Jorratu beharreko bide  
baten hasiera, bere esanetan,  
etorkizun, askatasun sano bat  
eraiki nahi badugu.

## Zer irudikatu nahi izan zuen ekitaldiak?

**Xabier Miguel Ezkerra:** Herri ho-  
nek, gutxienez azkeneko 100 ur-  
teetan jasan izan duen errealita-  
te baten argazkia ikusi genuen.  
Ekitaldi horretan konpromiso  
bat hartzen dute gatazka eza-  
gutu duten bi belaunaldik. Egi  
osoa partekatzeke asmoa adie-  
razten dugu, hirugarren belau-  
naldi horrek ezagutu ez dezan  
beste gatazka bat. Bihar eraiki  
beharko dugun gizarte berri  
hori ez da askea izango, egiaren  
bide bat ez badu egiten. Ikuspe-  
gi desberdinen artean kontrasta-



“Oraindik konfiantza jorratu eta bide bat egin behar da”, hala dio Ezkerrak.

tu beharko ditugu bakoitzaren  
egiak. Eta denek izango dute  
egiaren zati bat. Jende eta alde  
askok sufritu dute. Bihar eraiki  
behar edo nahi dugun gizarte  
berri horretan, zalantzarik gabe  
egi guztiak mahai gainean ezarri  
beharko dira. Eta lehen mailan  
jasan dugunok, inork gu baino  
gogo edo beharrik ez du izango  
egi osoa mahai gainean ezartze-  
ko. Gatazka politikoa egia ho-  
rren bidez behingoz konpondu  
behar dugu. Eta batzuk zioten  
bezala hitz gutxiarekin, ez deza-  
gun inoiz ahanzi, gu ez ginela  
gerrara joan, gerra gugana eto-  
rri zela. Ez dugu berriz gerrarik  
nahi eta gerrarekin bukatu nahi  
dugu, hirugarren belaunaldi  
horrek ezagutu ez dezan bes-  
te gerra bat. Hori da neuretzat  
abenduaren 30ean hasten dena.  
Zintzoki egia guztia, sufritu du-  
ten guztien onarpena mahai gai-

nean jartzea eta biharko gizarte  
berri hori sanoki hastea.

## Abiapuntua izan da hau, nondik jarraitu?

Oso garrantzitsua da erre-  
latoaren eta arrazoiaren in-  
guruan, gutxienez azkeneko  
30 urteetan jarrera kontra-  
rriak izan ditugunak irakurketa  
amankomuna egitea. Borondate  
hori badagoela uste dut. Orain-  
dik konfiantza jorratu eta bide  
bat egin behar da. Bide horre-  
tan, zalantzarik gabe pausoak  
eman beharko dira. Herri hone-  
tan 80 urteotan jasandako erre-  
presio mota anitz jaso dago  
liburu batean. Liburu horretan  
daudenak eta haien egiak ma-  
hai gainean ezarri, herriarekin  
partekatu, eta erreparo baten  
bila joan behar da. Bakoitzaren  
sufirimendu horren onarpena.  
Helburu bakarrarekin; bihar

eraiki behar dugun Usurbil be-  
rri hori, hortik hasi behar da.  
Gatazka pobrea da, etxean ge-  
ratzen bada. Hortik atera eta  
herrian konpartitu behar dugu  
gatazka latz eta gordina, su-  
frimenduz bete gutxienez 60  
urte hauetan. Urrunago joanez  
gero, ez dezagun ahanzi orain-  
dik hainbat familia bere senide  
bila dabilela. Horrek adierazten  
du oso ondo, zergatik datorren  
bigarren gatazka. Eta hori ez  
dugu errepikatu behar.

## Ez errepikatu eta zauriak ixten laguntzeko?

Honetaz lan bat hasten da. Bi-  
deak erakutsiko du. Ez dago  
etorkizun, askatasun sano bat  
eraikitzeke aukerarik, nolabait  
egiaren bide zintzo bat egiten  
ez badugu. Munduak eraku-  
tsi digu, gatazkaren inguruan  
irakurketa maltzurra egiten  
denean, errelatoa edo gertaki-  
zunaren inguruko bi ikuspegi  
ezberdin egiten direnean, hu-  
rringo gatazkaren hasiera iza-  
ten dela. Usurbilen aurreneko  
aldiz, gatazkaren irakurketaren  
inguruan, desio berbera irudi-  
katzen dugun lehenbiziko al-  
dia da hau. Gure asmoa hor ez  
da geratzen. Hurrengo urtean,  
eta tartean, beste zerbait izan  
beharko da. Urte hau zerbait-  
ten hasiera da. Zerbait hasi da  
abenduaren 30ean.

## Martxel Goenaga: “Nolabait elkartu egin behar gara”

**1** 925ean Nagusia kaleko Erre-  
roenean jaioa. 11 urte zituen  
Gerra Zibila hasi zenean. Es-  
perientzia latza, bizi behar izan  
zuen. Bere ustez, ahanzturan ezin  
duena geratu. Garai hartan gerta-  
tutakoaren memoria bizirik man-  
tentzea ezinbestekotzat jotzen du  
Martxel Goenagak. Usurbildarrak  
abenduaren 30eko hitzorduan par-  
te hartu zuen. Garrantzitsua iruditu  
zitaion ekitaldia, eta bide horretan  
sakontzeko beharra ikusten du;

bakean bizi ahal izateko, aurrera  
begirako bidea, elkartuta jorratzea.

## Nola kontatu belaunaldi berriei garai hartan bizitakoa?

**Martxel Goenaga:** Gerra hasi ze-  
nean 11 urte nituen. Fusilatu zi-  
tuzten herritar batzuk ezagutzen  
nituen. Oso gogorra izan zen. Har-  
ritze naizena da orain arte kontu  
hau ahaztua egon dela hainbeste  
denboran. Esan nahi nuke, urteak  
eta urteak pasa direla, eta ez dela

ezer airtatu izan.

## Ekitaldi garrantzitsua beraz abenduaren 30ekoa?

Bai. Hala hasi behar du. Ekitaldi po-  
lita izan zen abenduaren 30ekoa.  
Berriz ere urtean behin zerbait egin  
beharko litzateke. Gauzak gogora-  
razi. Hura latza izan zen. Herritar  
asko kaltetu zituen. Gorroto eta su-  
frimendu asko zegoen.

## Gerra oso gertu bizitakoa zara?

Anaia soldadu izan nuen. Perratokia  
genuen orain Potxoenean, etxearen  
kontran, gerra denboran armeri be-  
zala izan zuten. Jaiotetxea dudan  
Erreroenean, ganbaran erreketek  
izan ziren lo egiten. Orduko bizimo-  
duan gosea pasa genuen.

## Etorkizunean berriz halakorik ez errepikatzeko zer egin?

Bakea nahi genuke. Iragana ahaztu  
gabe, nolabait elkartu egin behar  
gara.

## Etxekoentzat, gabonetako I. Futbol Topaketako kopa

**E**mozioz beteriko goiza bizi izan zuten abenduaren 27an, Usurbilgo Futbol Eskolako 2004an jaiotako gaztetxo taldeak. Usurbil FT-k estreinakoz antolaturiko gabonetako lehen futbol topaketan parte hartu zuten, Uharte A eta B, Urnieta, Villabona, Lazkao, Baloia Ametsak eta Hernani taldekoekin batera.

Azken faseraino heldu ziren usurbildarrak. “Finalean, Usurbilek Lazkaoren aurka jolastu eta berdindu ondoren, penaltietan irabazi zuten!”



Lazkaoren aurkako finalean, penaltietan irabazi zuen Usurbilek.

berri eman dute Usurbil FT-tik. Gabonetako I. Futbol Topaketako kopa etxean geratu da beraz.

**Primerako eguna,**

**Primerako jokalariekin**

Gaztetxoak oso pozik. Ez bakarrik kopa irabazi zutelako, bezperan, futbolari ezagunen bisita jaso zutelako baita; lehen mailan, Euskal Herriko talde ezberdinetan jokatzen ari diren usurbildar izarrena. Jon Irazustabarrena (Eibar), Imanol Agirretxe (Real Sociedad) eta Andoni Iraola (Athletic) bisitari izan zituzten gaztetxoek. Futbol Eskolakoekin arratsalde pasa ederra izan zuten.

Argazkiak: Usurbil FT.



Txapelketako familia-argazkia, Andoni Iraola (Athletic), Imanol Agirretxe (Real) eta Jon Irazustabarrena (Eibar) jokalariekin batera.

## Hurbilago San Silvestre lasterketa



Urte zahar eguneko hotz handiari, umore onez eta jai giroan aurre egin zioten, V. Hurbilago San

Silvestre herri lasterketako partaideek. Koadrilak, gurasoak, haur zein gaztetxoak... lasterka ikusi

genituen, herri merkataritza eta ostalaritza suspertzearen aldeko ekimenean. Beroketa ariketekin

hasi zuten martxa, prestatzaile bikain baten laguntzaz: iaz beza-la, Paulinorekin.



# Jontxu gogoan



Urtarrilaren 3an lagun asko batu ziren Jontxuren omenezko egunean. QR kodearekin, omenaldiko irudiak ikusteko aukera duzue.

Urtete Jontxu gure artetik joan zenetik, baina bizirik jarraitzen du guztion oroimenean. Uriberen lagunak omenaldi egun ederra prestatu zioten Jontxuri joan den larunbatean.

Jokoak, bazkaria, bera la-

gunekin ageri zen argazki proiektzio hunkigarria, eta 10 talde partaide izan zituen kontzertu gaua. Lagunak nonahi zituen Jontxuk, oso maitatua zen herrian. Nabari zen urtarrilaren 3an. Horren erakusle, bere omeneko ekimenek izandako harrera. 150 lagun inguru

bazkaltzen ikastolako jangela berrian, Askatasuna plazako aterpera ere jende mordoa bildu zen proiektzioa ikusi eta kontzertuez gozatzera. Omenaldi egunari begira zabaldu zuten mezuak zioen moduan, "joan zinen arren, oso gertu sentitzen zaitugu Jontxu!".



Jokoak egin zituzten frontoian eta, ondoren, 150 lagun batu ziren bazkarian.

## Urte hasieran ere, "Ez dadila haria eten!" zikloa martxan

Otsailean eraistekoak dira Usurbilgo Gaztetxea. "Ez dadila haria eten!" aldarripean, honako hauek dira egunotarako antolatutuzten ekimenak:

### Urtarrilak 8, osteguna

20:30 Afari beganoa Gaztetxean, borondatearen truke.

### Urtarrilak 11, igandea:

#### Haur eta Gaztetxoan Eguna

10:30-12:30 Jolasak frontoian: LH4-DBH 2koei zuzendua.

17:00-19:00 Tailerrak Gaztetxean: HH3-LH3koei zuzendua.

19:00 txokolate jana denentzat.

### Urtarrilak 16, ostirala

21:30 Kontzertua: Le Cerde des Mallissimalistes, Joseba Irazoki, Sofa.

### Urtarrilak 18, igandea

18:00 Antzerkia: "La Esclusa". Sarrera: 3 euro.

# “Odol emaile berriak behar ditugu”



“Jende gaztea animatu dadila, odol emaile asko jubilatzen ari baita”, aste honetan NOAUAri eskainitako elkarrizketan adierazi digutenez.

**2**014an 9 lagun hurbildu dira lehen aldiz odola ematera. Guztira 353 odol emaile Usurbilen. Lerroon bidez, Odol Emaileen Elkartetik eskerrak helarazi nahi dizkiete odola ematera gerturatuturikoei. 40 urte bete dituen bilgunetik, 2015ean ere gutako edonork bizitzako edozein unetan beharrezkoa suerta dakiguen odola ematera animatzen gaituzte. Gonbita bereziki, geroz eta gehiago hurbiltzen ari diren gazteei.

## Zein da odol emailearen profila Usurbilen?

**Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea:** 18 urtetik gorakoa. Denetarik dago; gizon zein emakumeak, gazte eta helduak... Ezin gara kexatu. Iaz 9 odol emaile berri izan genituen. Guztira, 353.

## Erreleboa bada beraz?

Azken aldian jende gazte asko ari da animatzen. Gazteak oro har elkarren artean animatzen dira, bateak beste animatzen du. Etortzen diren lagunak ere hasi izan dira odola ematen. Hori behar dugu, gazteak behar ditugu. Jende gaztea animatu

dadila, odol emaile asko jubilatzen ari baita. Orain odol emaile berriak behar ditugu.

## Lehen aldiz odola ematera doanak zer egin behar du?

Sendagilearengana joan, tentsioa hartu, eta gero bere galderak egiaz erantzun. Medikuek eman behar du, odola emateko baimena. Odol emaile berriaren odola ondo aztertzen dute. Azterketaren emaitzak gero, gutun bidez jasotzen ditu odol emaile berriak. Hurrengo odol ematea noiz egokitzen den jakinarazteko gutunak bidaltzen dituzte etxera. Orain gaixotasun berriak agertzen ari direnez, oso analisi zorrotza egin behar dela diote. Kontrol handia dago. Kontuan izan, kanpora bazoaz, edo ebakuntza bat izanez gero, hilabete batzuk itxaron behar dira odola eman arte.

## Kontzientziatuak gaude odola emateko beharraz?

Bai. Informazio gehiago dago. Serioago hartzen duzu askotan, gertuko norbaiti, familiakoren bat beste norbaiten odolaren beharrez dagoela ikustean. Odolaren beharra

geroz eta handiagoa da. Aurreko batean entzun genuen, nola esaten zuen gaixo dagoen batek, odol poltsa sartzean sekulako indarra eta jateko gogoa ematen ziola. Odol berriak indar handia du.

## Odol emaileak behar dira baina baita hau dena antolatuko duen talde bat ere. Zein da zuen egitekoa?

Odol emate egunerako ogitartekoak prestatu, mahaia jarri, odol emate amaieran hurrengo egunerako ambulatorioa txukundu... Tortilla ogitartekoak prestatzen ditugu, ardo pixka bat, coca-cola edo ura eskaintzen dugu. Odola ematen duenak, mahaira etorri eta jan edana izaten du.

## Laguntza nahikoa duzue?

Udalak laguntza ematen digu. Gustura gabiltza. Bada laguntzeko borondatea. Zerbait egin behar da besteentzat. Odola ematen ez duenak, antolaketan lagundu dezake edota odola ematera gerturatzen direnekin hitz egin. Odol emaileak oso esker onekoak dira. Giro ona egoten da eta jendea ezagutzeko aukera ematen du.

## Urtarrilaren 12an, odol ematea

Datorren odol emate eguna: urtarrilaren 12a, astelehena.

Orduetgia: 18:00-20:30.

Tokia: ambulatorioa.

Urtean zehar: bi hilean behin, lehen astelehenetan.

Informazio gehiago: gotatanta.com

Antolatzailea: Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea.

## Odola emateko

### baldintza nagusiak

- 18-70 urte artean izatea.
- 50 kg baino gehiago pisatzea.
- Osasuntsu egotea.
- Gure odolaren bitartez besteei kutsa diezaiekegun gaixotasunen bat harrapatzea eragingo ligukeen inolako arrisku-jarduerarik egin ez izana.
- Zalantzak argitzeko: gotatanta.com edo gerturatu ambulatorioa, odol emate egunean.
- Odol emanaldien maiztasuna: urtean 3 aldiz.

# Urte hasiera, Andatza gainean

U sadio zaharra dugu urte berri egunez, parrandazaleak etxeratzen hasten diren unean, jaiki berri diren beste hainbat herritar mendirako bidean joaten ikustea. Aurten ere bai. Irudiko herritar taldeak, Andatza hasi du urte berria. Giro hotza bai, baina egun eguzkitsua izan zuten urtarreko lehena, argazkian ikus daitekeen moduan.

## Irisasi BTT 2015 "Hotzak akabatzen"

Urtarrilaren 1ean oinez osatu zuen herritar talde batek, Andatzako bidea. Bizikleta gainean inguratuko dute mendia beste hainbat lagunek, datorren urtarrilaren 25ean ospatuko den Irisasi BTT 2015 "Hotzak akabatzen" probaren baitan. Kirol ekimenerako izen ematea laster irekiko dute kirolprobak.com atarian. Iaz bezala, bi ibilbide egongo dira aukeran; bat motza, 30 kilometro ingurukoa, bestea luzea 40 bat kilometrotakoa. Proba goizeko 9:30etan hasiko da. Frontoia izango du abiapuntua eta helmuga.

## 2015eko irteerarako aseguruua

Aurrerantzean Gipuzkoako beste elkarte asko bezala, Andatza ere mendizale federatuen taldea izan-



Andatza hasi zuten urtea. Hotza eta eguzkia izan zituzten bidelagun.

go da. Orain arte, bilgunez antolatzen zituzten irteeretan, federatu nahiz federatu gabeak joan zitezkeen. Hemendik aurrera ez. Mendi-asegurua izatea ezinbestekoa izango da txangoetan parte hartzeko.

Argibide gehiagorako:

Andatzako web orria: [andatzamendizale.info](http://andatzamendizale.info) ("Federatzeko 2015" atalean).

Mendi Federazioko web orria: [gmf-fgm.org](http://gmf-fgm.org)

## Futbola Haranen

### Urtarrilak 10, larunbata

10:00 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Landaberri 5B

Udarregi 6B-Urnieta 6B

11:15 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa "A"

16:30 Ohorezko Maila:

Usurbil F.T.-Hondarribia F.E.

18:30 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Kostkas KE

## Eskubalo partidak

### Urtarrilak 10, larunbata

10:00 Alebin neskek: Udarregi 5A-Urumea A

10:00 Alebin neskek: Udarregi 6A-Urnieta A

11:00 Alebin neskek: Udarregi 6C-Udarregi 6B

12:30 Kadete neskek:

Usurbil K.E. "C"-Leizaran B

16:00 Kadete neskek: Usurbil K.E. "B"-Eibar

17:30 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Urola F.

19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala:

Ucin Aluminio Usurbil-Beti Onak

### Urtarrilak 11, igandea

10:00 Senior mutilak, 1. Territoriala:

Usurbil K.E.-Amenabar Zarautz

11:30 Senior neskek: Usurbil K.E.-Urnieta



Fernando Osak (zutik, ezkerretik hasita hirugarrena) Usurbil Arantzazu ibilbidean hartu zuen parte, 2012an.

Eguberrietako albiste tristeetakoa izan da. Fernando Osa mendizale donostiarraren heriotza. Biriketako edema baten ondorioz hil zen Andeetan, Argentina eta Txile arteko eremuan gertatu zen ezbeharra. Argazkian ikus daitezkeen, Osak harreman estua zuen usurbildar mendizale batzuekin.

Donostiarra zen baina Larrabetzun bizi zen. Duela 8 urtetik hona, Usurbildik antolatzen ziren ibilaldi eta irteera ezberdinetan hartu zuen parte. Usurbil Arantzazu ibilbidean, Mont Blancen iagoeran... Esperientzia handiko mendizalea zela baieztatu digute bere Usurbilgo lagunek.

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldia. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformatu egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailuak. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukaldia. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Ñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldia egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armaidu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldia, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitzi dugu; orain, 36 milioi pezetatara (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saileran. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldia eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetakota pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

2 logela alokatzen dira kontratu eta eroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. Deitu; 686 056 010 (Mariano).

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia, sukaldia, dena kanpora begira, garagea (marra) eta trasteroa San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokalden. 3 logela, komuna, sukaldia, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

## Salmenta, garajeak

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Honda Accord, 1.600 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, maletero handia eta aire egokitua.

2 marra dituen, aparkalekuak alokatu nahi ditut. Kale Nagusiaren hasieran. Bizkarre auzoan. 70 euro hilabeteen. 696 014 585.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezin duak edo amaieran dauden pazientek zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informe onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingeleza, frantsesa, latina, fillosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila nabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prententzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila nabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila nabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

**Zorionak Eñaut!**

Dagoeneko 7 urte. Ondo pasa zure eguna, Peru eta familia guztiaren partez

**Heriotzak****Manu Martín Gámez**

51 urterekin hil zen  
abenduaren 21ean

**Miguel Maria Aranburu**

75 urterekin hil zen,  
abenduaren 16an





Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteen bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketari egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpon-

tzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldeaz. Irakaskuntza graduatua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821

Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta erreferentziak klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsaldeaz. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldari, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketari lanetarako oro har.

633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademiaren lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara

arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko.

Matematika klaseak, maila gutzietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

#### BESTELAKOAK

"Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888."

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Atxegaldeko Erdiko kalean katubat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxoa da. Norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzte, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan... Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djlarra@usurbil.com

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Urtarrilak 8 - urtarrilak 18

**Osteguna 08** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 09** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 10** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Igandea 11** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Astelehena 12** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 13** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteazkena 14** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Osteguna 15** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 16** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Larunbata 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 18** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** AIZPURI ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 09 ostirala

■ **Bihurri haur ludotekako bazkideen batzar orokorra** 1. Kontuen argiketa, 2. Arduradun berrien hautaketa. 20:00etan ludotekan.

## 10 larunbata

■ **Bilboko manifestaziora joateko autobusa, kiroldegitik.** 10:00etan / 15:30ean. Datu gehiago: 8. orrialdean.  
 ■ **Igeldora irteera** 15:45ean Gaztelekutik. DBH1ko ikasleei zuzendua.

## 11 igandea

■ **Haur eta gaztetxoaren eguna** Usurbilgo gaztetxeak eta herriko hainbat gazte elkarlanean. 10:30ean jolasak frontoian, 17:00etan tailerrak gaztetxean, 19:00etan txokolatada...

## Eguberrietako etenaren ondoren, Guraso Eskola berriz ere martxan

Egoera batzuen aurrean galduta ikusten dira gurasoak. "Jarraibide egokiak nahi ditugu baina topatzen ez ditugunean, ingurukoengana jotzen dugu eta aholku horiek sarritan ez dira lagungarri izaten". Antzeko kezka dituzte Hitz Aho guraso elkarteak. Eta kezka horiek arintzeko, ikastaro batzuk antolatuta dituzte. Seme-alabekin elkar ulertzeko xedez antolatu dira ikastaro hauek. Urrian hasi ziren ikastaroak. Urtarrilean emango zaie jarraipena eta oraindik bada izena emateko aukera.

- Urtarrilak 11, urtarrilak 22.
- 17:00etan, Udarregi ikastolan.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1-4ko haurren gurasoek eskainiak.
- Irakaslea: Nerea Mendizabal psikopedagogo.



Nerea Mendizabalek eskaintzen ditu ikastaroak.

■ Izena emateko e-posta bat idatzi, helbide honetara: [hitzaho@udarregi.com](mailto:hitzaho@udarregi.com)

## Basa landareekin egindako afaria gaztetxean

"Ez dadila haria eten!" zikloaren baitan, ekitaldi ugari iragarri ditu Usurbilgo gaztetxeak. Eta horien artean, afora begano bat. Kasu honetan, basa landareekin osatua. Ostegun honetan, 20:30etik aurrera gaztetxean bertan, eta borondatearekin truke.

"Basa landareekin egindako errezeta desberdinak izango ditugu garaiko barazkiekin nahastuta: sorgin-zopa, osin-patea..."

## Kantu Taldekoen ikasturte berriaren hasiera

Udarregi Ikastolako kantu gelan batu ohi dira Usurbilgo Kantu Taldekoak. Urteko lehen entsegu datorren asteartean izango da, arratsaldeko 18:30etik 19:30era, eta gidaria Susi Elozegi Udarregi Ikastolako irakaslea.

### Urtarrilak 13 asteartea

Entsegua: 18:30-19:30 Ikastolako kantu gelan. Izen ematea: kantu gelan. Prezioa: 10 euro.

## Datozenak

### Datorren astean, "Jostunak" dokumentala Sutegin

"Jostunak: herritarren borondateak jositako istorio bat" dokumentalak Gure Esku Dago ekimenaren sorrera eta garapena ditu ardatz, ekainaren 8ko giza katea barne, eta Euskal Herriko kolore desberdinetako pertsona esanguratsuen bitartez erabakitze eskubidearen inguruko korapilo nagusien inguruko hausnarketa dakar. Urtarrilak 16 ostirala, 19:00etan Sutegin.

### Alkartasuna Kooperatibaren 2015eko egutegi aurkezpena

Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik, urtarrilaren 17an, goizeko 11:00etan Potxoenean. Errekondok "ilargiaren garrantzia eta bere zikloak azalduko ditu, uzta oparo bat lortzeko hainbat gomendio emanaz". Hitzordura gerturatzeko eman izena aurretik, doan, 943 361 114 telefono zenbakira deituta edo [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) helbidera idatzita.

### "La esclusa" antzezlan gaztetxean

Kartzelako gaia eta emakumea, antzezlanak lantzen dituen gaiak. Urtarrilaren 18an igandea, 18:00etan gaztetxean. Sarrera 3 euro. Kartzelako gaia eta emakumearena ukitzen dituen antzezlan. Ana Plazaren eskutik, Antonio Morenok zuzendua.

**txirriStra**  
**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ELORZA**

O BRAK ETA  
 ER REFORMAK S. L.

**661 804 688**

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



**antenas  
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

**noa**  
**euskararen**  
**aterpe**

*Bazkideok egiten dugu posible*

Astekaria, noa.com, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN  
ZAITEZ!**

eta opari eder  
hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean 36 euro.  
Informazio gehiago: 943 36 03 21  
elkartza@noa.com

# Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Komertzioetako  
plastiko poltsa

**BAI**



Kafe kapsulak hustu



Albal papera



Aerosolak



Erabili-hustutzeko  
lorontziak



Plastikozko botilak,  
letak eta tetrabrikak



Marrubien egurrezko  
haxe txikiak



Medikamentu  
kondarrak

**EZ**



Ontziak likidoarekin  
(hustu eta talestu)



Tonerrok



Lorontzi finko  
gogorak



Plastikozko  
eskularruak



Jostailuak



garbitania



# URDAIRA

Urtarrilaren 17an, LARUNBATA  
IREKITZEN DUGU!!!

## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

# 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 3ra  
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



📞 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 📞 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

# 943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

# aginaga

## SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!

ASTELEHENETAN ITXITA

# 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

## LARUNBAT HONETAN IREKITZEN DUGU!

%100 bertako sagarra

# Tel: 943 365 031

Santuenea